

BILBAO KIROLAK ERAKUNDEKO  
IGERILEKUNETAKO  
**ARAUDIA**



- >> Bete itzazu beti langileen eta soroslearen argibideak.
- >> 14 urtetik beherakoak heldu batekin batera sartu beharko dira igerilekuetara, erabilera kolektiboko igerilekuei buruzko euskal osasun araudia onartzen duen ekainaren 7ko 146/88 dekretua betez. Arduradun bakoitza, gehienez ere, adin txikiko 5 umez arduratu ahal izango da.
- >> 7 urtetik beherako umeak ezin dira bainatu, eurekin batera heldu bat ez badago.
- >> Ez ahaztu bainatu aurretik dutxatu egin behar dela, eta, igerilekuetara sartzeko, oinak garbitzeko gunetik pasatu behar dela.
- >> Motxilak edo poltsak gordetzeko, erabili itzazu aldageletako armairuak.
- >> Esparru osoan debekatuta dago jatea edo erretzea, eta beirazko ontziak ere ezin izango dira erabili.
- >> Kirol instalazioaren erabilera desberdinetarako gordetako espazioak errespetatu beharko dira.
- >> Komun, aldagela eta igerilekuetako hondartzetan, derrigorrez erabili beharko dira txankletak.
- >> Ezin da egin gainerako erabiltzaileentzat arriskuak diren edo traba eragiten duen jolas eta jarduerarik, esate baterako, jauziak, lasterketak, murgilaldi zakarrak eta abar. Era berean, ezin da egin jardueren garapen normala oztopatzen duen ekintzarik.
- >> Igeri egiten ikasteko kirol-materialen bat behar izanez gero, sorosleari eska dakiokete, eta, ondoren, material hori egoera onean bueltatu beharko da, horretarako egokitutako lekuan utzita.

IGERILEKUA BEHAR  
BEZALA ERABILTZEKO

**AHOLKUA**



- >> Istripuak saihesteko asmoz, komenigarria da erabiltzaileek igerilekue-  
tako sakonerak egiaztatzea, uretan sartu aurretik.
- >> Gomendagarria da txanoa erabiltzea.
- >> Azala hobeto zaindu ahal izateko, gomendagarria da bainatu ostean du-  
txatzea.
- >> Kirolean aritu aurretik, komenigarria da beroketak egitea.